

TRATU TXARRAK

1- Kaixo Joxe maitia
esan diot nekez,
alde batera bota
egin dit indarrez.
Umek begira zeuden
hasi naiz negarrez,
sartu ditut ohean
jotzeko beldurrez.

2- Gaur Joxe esnatu da
pozik eta alai
muxutxo bat eman dit
baina ni ez naiz gai.
Barkamena eskatuz,
zegon oso lasai
azkenean beldurrez
nik esan diot, bai.

3- Egun batzun ostean
dago bero-bero
golpek, irainak eta
bultzadak goizero.
Builaka hasi eta
jartzen da oso ero,
begia more daukat
berak jo ta gero.

4- Telefonoa hartu
amari deitzeko,
negarrari ekinda
barrenak husteko.
Zerbait pentsatu behar
aurrera egiteko,
ahaten hasi behar dut
Dena gainditzeko.

5- Pentsatzen aritu naiz
hoberena zer den,
horrela jarraituta
zer pasako zaiten.
Minik ez emateko
barrera bat jartzen,
gaurtik hasiko naiz
ezezkoa esaten.

6- Lortu dut bukatzea
ezin egonakin,
salaketa bat jarriz,
dena hobe zedin.
Kartzelan sartu dute
ez egiteko min,
dena pasatuko da
poz ugarirekin.

Saimar